

Lagun Ezkutua

Prestaketa: parte hartzaile bakoitzaren izenak paper batean jarriko ditugu zozketa egiteko. Material eta fitxa guztia prest izango dugu besteen ezaugarri positiboei buruz hausnartzeko.

Azalpena: Gutariko bakoitzak opari bat egin beharko dio beste bati zozketa bidez. Baina opari hau oso berezia izango da. Badakizue zer oparituko dugun? Oparia jasotzen duen pertsonak dagoeneko baduen zerbait oparituko diogu, baina beti ez daki zer duen, bere ezaugarri positiboak oparituko dizkiogu, dituen gauza onak, pertsona horrengandik gustatzen zaigun guztia.

Azalpen hau eman ondoren, zozketarekin hasiko gara, bakoitzak paper bat hartu behar du, eta bertan oparia egin behar dion pertsonaren izena agertuko da, baina ezin diozue inori esan zein tokatu zaizun. Zuen izena egokitzen bazaizue, papera hautestontzira itzuli eta beste bat hartuko duzue.

Bakoitzak oparia nori egin behar dion jakiten duenean, besteen ezaugarri positiboen fitxa bete behar du.

Opariak emateko data bat jarriko dugu, opariak eman behar ditugun egunean, parte-hartzaile bakoitzak bere lagun ikusezinari eman behar dio txartela. Txartela jasotzen duen haurrak ozenki irakurriko du txartelean jartzen duena eta besteei erakutsiko die. Garrantzitsua da ozen irakurtzea, besteek beren pertsonarengan ikusten dituzten ezaugarri positiboek jabetu daitezen.

Zutaz baloratzen dutan guztia	
Zer gustatzen zait gehien zutaz?	
Fisikoki gustatzen zait.	Adibidez zure jazkera, ilea, begiak,
Zure izakeraz baloratzen dut.	Adibidez, alaitasuna, lankidetzaz, inteligentzia,...
Uste dut ondo ematen zaizula	Adibidez kirola, lagunei entzutea, musika, abestea,....
Zugan miresten dut.	Adibidez jakinduria, gauzak jakiteko curiositatea, imaginazioa,....
Sentiarazten nauzu.	Adibidez lasai, zoriontsu,
Zure laguna izate gustatzen zait zeren.....	